

Legediaren erruleta

Online jokoak (Internetek) ez du mugarik. Europak bai. Eta muga adina interes, interes adina lege. Araudi saltsak nahasturik ditu apustu etxeak, apustuzaleak eta, bereziki, estatuen monopolioa babestu nahi duten arduradun politikoak.

JON TORNER

BARTZELONA ETA MANCHESTER UNITED futbol taldeek iaz jokatu zuten Txapeldu-nen Ligako finalak 45 milioi euro mugitu zituen Betfair apustu-etxean. Rafa Nadal eta Robin Soderling tenislarien arteko Roland Garros txapelketako partidak, 18 milioi euro.

Interneteko kirol-apustuek geroz eta jende (diru) gehiago erakartzen dute. Berdin pokerrak eta kasino jokoek. Espainiako Estatuan, apustu-etxeek 200 milioi euroko irabaziak lortu zituzten 2008an –beste zero bat gehitu orotara mugitu zen diru kopurua kalkulatzeke–. Irabazi horien parte bat esta-

tuak jaso beharko luke, baina Suitza, Malta eta Gibraltar bezalako paradisu fisikaletara doa. Edo enpresa horien egoitza fisikoak dauden herrialdeetara: Britainia Handia, Austria... Espainian online jokoak ez baitago araututa. Frantzian (oraingoz) ere ez.

Erregulaziorik ez izateak esan nahi du, batetik, Interneteko apustu-etxeek fiskalitate txikia duten herrialdeetara desbideratuko dutela jokoan dagoen diruaren parte handi bat. Baina bada beste zerbaite. Bai sektoreak, bai apustuzaleek, segurtasun handiagoa izango lukete online jokoak arauturik balego. Hala adierazi digu Laura Guillot Espainiako



Poker jokalaria

“Interneteko itsasoan, dena galtzen da; erregulatuta ere, nola kontrolatu?”

Online jokoen nondik norakoak ezagutzeko, bere izena ez agertzea nahiago duen 32 urteko gipuzkoar batekin izan gara. Kirol apustuetan denbora batez aritua, pokerrak harrapatu du orain.

Partida kontrolpean duenaren ironiarekin erantzun die gure galderei: “Ez dut uste nire iritzia poker jokalaria arruntarena denik; askok dibertsioagatik jokatzen dute, eta nik ez, nik diruagatik jolasten dut. Eta dirua irabazten dibertitzen naiz. Diferentzia dago jokoaeren ikerketari eskaintzen diozun denboran. Nik ikasi egin nahi dut; beste batzuk, ezer irakurri gabe, zuzenean hasten dira diruarekin jokatzen. Emaitzak nabariak dira, nik orokorrean ez dut sekula dirurik galdu, eta galduko banu jokatzeari utziko nioke. Erabiltzaile gehienek, ordea, dirua galtzen dute”.

Zein webgunetan aritzen zara pokerrean?

Poker etxe askotan aritu naiz, eta gustukoena Full Tilt Poker eta Poker Stars ditut.

Zergatik horietan? Seguruagoak dira, irabazi handiagoak lor daitezke...?

Software onena beraiena da, eta asko jokatzen dugunok kontutan izan behar dugu hori. Gainera, horiek dira poker etxe handienak; beti daukazu mahai-joko mordoa aukeran, edozein ordutan. Handienak direnez, batzuetan suertatzen da norberaren taldetxoan aurkari eskas bat edo beste topatzea, eta haren dirua zure kontura pasatzea eskertzekoa da.

Zein autokontrol mekanismo hartzen dituzue diru gehiegi ez jokatzeko... galtzeko?

Pokerrean Bankroll-aren Gestioa deitzen zaio. Dokumentazio ugari dago horri buruz. Daukazu diru guztia mahai batean jokoan ipintzea aukera oso txarra da. Zure kontutik desageretzea gehiegi axola ez zaizun kopurua jarri behar da jokoan, galdutakoa berreskuratu ahal izateko adina diru gordez. Daukazu diruaren araberrako aurkari egokiak aurkitzea da kontua. Eta mailarik baxuenean ere dirua galduz gero... parxisak ere bere emozioa badu! Askok ez dituzte oinarriko arauak jarraitzen, eta nigatik hobeto dute denek horrela jarraitu.

Internet Apustularien Elkarteko (AEDAPI) bozeramaileak: “Plataforma ezagunenak seguruak dira. Bwin-ek adibidez akordioak ditu online jokoen operadoreak ordezkatzeko dituen EGBA erakundearekin, Austriako legediaren menpe dago, burtsan kotizatzen da, lizentziak ditu Gibraltar edo Malta... Baina badira beste enpresa batzuk hainbesteko bermerik eskaintzen ez dutenak. Online jokoa arautuz gero, errazagoa litzateke webgune horiek identifikatzea”. Orduan, zergatik ez dute arautzen?

Galdera bakarra nahikoa izan da Laura Guillotek abiadura hartzeko. Egoeraren analisi zehatza egin digu ordubetea, eta ezin guztia hona ekarri. Gaiari buruzko informazio gehiago jaso nahi baduzue, bere blogera jo dezakezue (<http://lauraguillot.blogspot.com>).

LAE, jokalekua prestatzen

Egoera dirudiena baino korapilatsuagoa dela dio, ezkutuko interes asko dagoela. Erregulazioak hiruzpalau aurkari ditu: sektore tradizionalaren *lobby* (Cirsá, Codere...); LAE (Loterías

Online apustu eta jokoen artean, pokerrak ezagutu du hazkunderik handiena. Kasino-joko batzuek ez bezala, irudi ona dauka: erabiltzaile kualifikatuagoak erakarri ditu, telebistan agertzen da... Kirol-apustuei dagokienez, nola ez, futbola da oro har nagusi, tenisak, 1 Formulak eta zaldi lasterketek herrialde batzuetan arrakasta handia duten arren.



Nork ezartzen ditu joka daitezkeen diru kopuruen mugak?

Norberak aukeratzen du zein mahaitan jolasten duen. Mahai bakoitzean maila bereko jokalariek jokatzen dute... edo beharko lukete. Aurkarien maila, gutxieneko apustuko ezartzen du: 0,02 dolar, 0,50, 2, 5, 10, 50... Eta Sit and Go edo txapelketetan, izen-emateak: dolar bat, 3, 5, 10, 100, 500, 1.000... Portzierto, eurotan joka daitezkeen taxuzko poker etxe bat egotea eskertuko nuke, daudenak nahikoa tristeak dira eta.

Behin irakurri nuen poker etxe batek ez ziola utzi jokalaria bati hilabete horretan diru gehiago sartzen. Antza, tipoak ez zekien pokerrean jokatzen, eta mailarik baxuenean hasi beharrean, semi-profesionalen artean ari zen, bere dirua mahaiko tibu-roiei oparitzen ari zela konturatu gabe. Hori ez da sarri gertatzen, baina...

On-line jokoaren legedia ezagutzen duzu? Badakizu Espainian ez dagoela erregulatuta...

Poker etxe gehienak Bahama, Gibraltar, Liechtenstein eta horrelako lekuetan daude alta emanda. Hala da, Espainian ez dago arauturik, eta topatuko balute webgune bat zuzenean Espainiari eskainita dagoena, bere aurka joango lirateke, horretarako baimenik izango ez lukeelako. Interneteko itsasoan, ordea, dena galtzen da. Erregulatuta ere, nola kontrola dezakete? Nik Trinidad eta Tobagon alta emandako poker etxe batean joka dezaket nire etxetik eta dirua Gibraltarreko banku batera pasa. Zer arraio egin dezake gobernuak? Teknologia lege eta mugen aurretik doa beste behin ere.

Poker etxeek sekulako kontua dute hanka sartzerik ez egiteko. Erakunde bat dago poker etheen softwarea-eta kontrolatzen dituen, eta taxuzko etxe guztiek dute haren oniritzia, bestela akabo. Inoiz hanka sartzen badute, poker etxeek azkar asko ematen dituzte argibideak, eta beharrezkoa bada dirua itzuli, lehia handia baitago euren artean. Baten batek ospe txarra hartzen badu, erabiltzaileak beste norabait pasako dira.

y Apuestas del Estado) eta neurri apalago batean ONCE; eta autonomia erkidegoak edo, zehazkiago, "euren inkompetentzia".

Bere hitzetan, sektore tradizionalak uste izan du erregulaziorik ez badago, kanpoko enpresentzat Espainian sartzea zailagoa izango dela. "Ez da hala", adierazi digu, "Interneti ezin zaizkio mugak jarri". Dena den, bakarren batzuk erreakzionatzen hasi dira. Cirsa eta PartyGaming konpainiek, adibidez, Azartia.com plataforma aurkeztu zuten hilaren hasieran.

Bien bitartean, Espainiako Gobernuak ere mugitzen ari da, baina isilpean, partida irabazi-

ko duela sumatu arte ez baita arriskatuko. Espainian, joko publikoa, estatuak (LAEK) zuzenean kudeatzen duena, Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren esku dago. Pribatua arautzea, aldiz, autonomia erkidegoei dagokie. Eta halaxe ari dira, bakoitza bere aldetik. 1990eko hamarkadara arte, joko pribatua Barne Ministerioak kontrolatzen zuen, haren menpe zegoen Jokoaren Batzorde Nazionalaren bitartez.

Joko pribatuaren kontrola erkidegoen eskutara pasa eta denbora gutxira, artean bakoitza bere lekua bilatzen ari zenean, Internet agertu zen. Eta hura, noski, ezin zen auzoka egituratu. Erkidegoek, "ezjakintasunagatik eta sektore pribatuaren preioengatik", ez dute online jokoa arautzeko deus egin, ezta Madrilek eta EAEK, 2007an apustu-etxeen jarduna erregulatuta eta merkatu berrietara zabaltzeko aukera sortu zenean ere.

Politikarien ezjakintasuna

2008ko ekainaren 18an, Ogasun eta Barne ministerioetako, LAEko eta erkidegoetako ordezkariak Bartzelonan bildu ziren, zer eta nola erregulatuta erabakitzeko. "Orduan esan nuen elkarrekin bazkaldu eta argakia ateratzeko besterik ez zirela elkartu, eta asmatu nuen", dio Guillotek. "LAEK erkidegoei esan zien lasai egoteko, prestatuko zuela berak zirriborroa. Politikariek, ezjakin hutsak direnez, LAEren esku utzi dute ardura hori, errealitatean euren lehiakide denean".

AEDAPIko bozeramailearen iritziz, aurrerapausorik eman ez izanak ez du



esan nahi LAE lozorroan egon denik. Aitzitik, jokomahaia bere neurrira prestatzen aritu da, iazko ekaina baino dezente lehenagotik, gainera. Duela bi urte Informazioaren Gizartea Sustatzeko Legea (LISI) onartu zuen Espainiako Gobernuak, eta han jasotakoak beteko zituela hitz eman zuen, besteren artean, Interneteko joko eta apustuak arautzeko Lege Proiektua aurkeztuko zuela. “Adarra jotzen ari dira. Legearen zirriborrorik ere ez dute aurkeztu oraindik. Erritmo honetan, 2012ra arte ez da ezer egingo”, azaldu du Guillotek.

Frantzia, polemikarekin baina aurrera

The Economist aldizkariak online jokoak European bizi duen egoera zoroari buruzko artikulua plazaratu zuen iragan uztailean. Hark ere argi dauka: hainbat herrialdek inposatutako debekuak estatuaren esku dauden monopolioak babestea du helburu, Espainiako LAE eta ONCE –Ministro Kontseiluaren menpe dago– eta Frantziako Française des Jeux (loteriak) eta PMU (zaldi-lasterketak), adibidez.

Frantzia, Europar Batasuneko beste hamalau estatutan eta AEBetan bezala, online jokoak oraindik legez kanpoko jarduera da. Duela bi aste, ordea, Nazio-Biltzarrak merkatua liberalizatu eta arautzeko lege proiektua onartu zuen –senatuan eztabaidatuko dute orain–. Tira, Gobernuak dio “liberalizatu” egingo dela, baina sektore pribatuaren ustez haren monopolioa babesten jarraitzeko besterik ez du balio lege proiektu horrek. Hala uste dute AEDA-PI, EGBA eta RGA (Urruneko Jokoaren Elkarte) erakundeek. Gobernuaren lizentzia berezia lortu eta Frantzia sartuko liriteken apustu-etxe atzerritarrek, %15-%20ko erretentzioa izango lukete. Alegia, sariak jokoan dagoen diru-kopuruaren %80-%85 ordezkatuko lukete, kopuru txiekiegia, sektorearen ustez. Eric Woerth Aurrekontu ministroak adierazi du ez daudela prest



Laura Guillot Espainiako Internet Apustularien Elkarteko bozeramailearen iritzi, offline eta online jokoak ez dira arerio, osagarri baizik. Kasino fisikoetan, adibidez, geroz eta gutxiago dira bingoan jokatzeko dutenak; gehiago, ordea, Interneten urrats batzuk eman ostean, pokerrean dabilzanak.

Online jokoak debekatzearen helburua da estatuaren esku dauden monopolioak babestea. Espainiako LAE eta ONCE, eta Frantziako Française des Jeux eta PMU, adibidez

zorte-jokoek estatuari ematen dizkioten 5.000 milioi euroak apurka kuzkurtzen joateko.

Ez da hori, ordea, Frantziako lege proiektuak sortu duen polemika bakarra. Kirolak, bazter guztiak ziprizzintzen dituen fenomeno “espekulatiboak” –Guillotek definitzen duen moduan–, ika-mikaren erdira egin du salto.

Nazio-biltzarrak proposatu du joko-operadoreek zuzenean –bitartekaririk gabe– ordaindu beharko liekeela kirol taldeei, euren inguruko apustuak eskaintzeagatik, “kirolaren zintzotasuna bermatzeko” ezinbestekoa ei den baldintza. EGBAk esan du ez dagoela arazorik kirol-erakundeek ordaintzeko, baina zuzenean egitea ez dela egokiena. Erakunde horren ustez, gobernu izan

beharko litzateke, operadoreak zergapetu ostean, diru-sarreraren parte bat kirol taldeei eman beharko liekeena.

“Politikariek diote kontsumitzaileak defendatu nahi dituztela, ludopatia sustatu baitezake online jokoak. Baina legearen beste aurpegiak euren hipokrisia erakusten du”, dio *The Economist*-ek. “European zein AEBetan, lekuan lekuko monopolioek baimena dute Internetez apustuak zabaltzeko, enpresa atzerritarrek debekaturik dutenean”.

LAEk (www.loteriasypuestas.es) eta ONCEk (www.juego-sonce.com) adibidez Internetez jokatzeko aukera eskaintzen dute. “Gainera, enpresa pribatuek ez bezala, nahi bezainbeste publizitate egin dezakete”, ohartarazi du Guillotek.

Elkarrizketaren amaieran, hedabideok ere jokoan sartuko garela esan digu. “Tira, jada ari zarete sartzen”. Hasieran ez diogu ulertu zer esan nahi duen. “Informazioa oparitzen ari zarete, *accomoditya*. Publikatutako albisteen inguruko apusturik zergatik ez duzue eskainiko? Aurreikus daitekeena oinarritzat duen merkatua zirrargarria da. Dirua egiteko modua da, Interneten, paperean zein telebistan”. Gogoan hartuko dugu. ■